

GUIPUZCOA TARRACO

22718

ATV

Paper onen oñean firmatzen degunoc egun degu adisquide-batzarre bat, gaur dan egunean onelako billera moduen gañean dauden leguerie ausi gabe, Corteetaraco Diputaduac auto edo elegitze-
co sarri izango diran eleccioetan cer egun bear degun ecusi eta erabaquitzeo asmoan. Aleguiñaz
sayatu guera gauza guztiai beguiratzen onelako lambide bati dagoquion moduko eldutasunarequin,
bada eguimbide au noiz nay ere balio aundicoa dalarie, gaur dan egunaean, alde guztietara begui-
zain ezquiero, da ecinda gueyagoraoa, emendic etori ditezquean ondorenaegatik.

Sarta bear ote degu, ala ez eleccioetako despitan? Guizon bear becelako batzueri dagoquiten
moduan cumplitzen ote degu ala ez, gueren conciencietan onenentzat daucagun alderdiari gueren
votoak emangabe gueratuta? Jaungoicoa eta Fueroac: ona emen gure alderdia: Utzi ote dezaque-
gu au, gueren aldetik ecer egun gabe? Ez, ez milla bider. Eciñ artu dezaquegu eta ez degu
arto ere bear orain orain becela gure gain aleguiña egun gabeko ieusquizunie.

Deizquiogni, bada, bear bearrecoa dala gueren votoak ematera jualea, eta juateco asmoan ar-
quitzen guera; gueren alderdia garaitzalle irteea, ez beste moduz, baicic leguez eta videz, iri-
chi nay goenduquean guizon honradu eta paquetsuac becela.

Baña cer esan naiko dute gure votoak? Ceren billa gabiltz? Esan degu ceiñ dan gure alder-
dia, Jaungoicoa eta Fueroac. Nai degu gure Erligio Catolica Apostolica Erromacoa izan dedilla Es-
paniako Erligio bacarra. Ez degu inolako moduz nay Espanian edocein Erligio agirian gordetzeko
libertaderie izatea, eta aini guchi eguzkao Erligio bacarra eta guezurrezeoae, berdinac halira be-
cela, guztiak malla batean ipintzea, onela eguna la guezurra berdin eguiñaz. Baña oraindie au ere
ez da asco: garbiró esaten degu gañera Espanian Erligio bacarra izate au artzen degula gue-
Erligioari berari ecinta gueyagorao dagoquion gauzatzat; eta aitormen au eguiten degu, cerga-
de ambat beste norbaitec ere ori bera aotan artu lezaque, baña politikaraco bacarric conveni dan
gauza bat becela. Orregatik, nay degu emen gure Erligioa bacarric izatea leguez ta videz bera-
ki dagozquion escubide ta privilegio guztiaquin: nai degu, itz batean, Eliza Catolica Apostolica
Erromacoa, Espanian bacar bacarra izateaz gañera, berae izan dezala, ez itzez bacarric baita
obraz ere, beraren Ipinle Jesueristoc nay zuquean egunquzunetaraco bear duan libertade ura
guztia, reñari eciñ ipini deyoquete eta ez diote ipini ere bear guizonac ez eragozpenic eta ez mugia
ta neurririk. Escalzen degu libertade au aitorlu eta errespetatu daquiola, onen bitartez azaldu eta
agurteko hidea izan dezan berari dagozquion gauza guztietan. Betoz bada San Ignacioren se-
meak Loyolako eche santura, eta beude begen oñean Monja ta Fraileen Comunidade guztiak. Eta
gure oriontasunne aundiena dan ezquiero Catolico Apostolico Erromacoac izatea, gueren enten-
dimendua eta vorondate osoarequin ezagutzen degu Erromaco Aita Santua Jesueristoren Vicario
edo ordecoltzat lurrean, eta berae erabaquitzen dituan gauza guztiaq ontzat artzen ditugu buruac
matorriak batere erreparoric gabe, eta ala, sinisten degu berae sinisten duan guztia, amatzen
degutu berae amatzen duan guztia, eta condonatzat degu berae condonatzan duan guztia. Eta inore
matorriak izan ez dezau gue Aita Santuarequin daucagun batasun osoaren gañean, conformatzan
guera osoro, seme onac becela, berae 1864 garren urteko Abenduaren zortzian *Syllabus* deitzen
ezkondekoan erabaqui zuaz guztiaquin, eta prestarquintzen guera ichu ichuan artzeo berae
mugosten digun guztia, cergatik daquigun Fedearen eta oituraren gañeco gaucetan eciñ utse-
nim dezaqueala.

Izanic go, luraren aberastasunagatik ez bada ere, here legue zar jaquinsuaegatik zorionecoa
nai Provincia onetako semeac, nai degu legue avec gordelzea. Maitatzen ditugu biotz biotzetic
etorri Fuero, usario eta oitura onac, eta nay degu orain eta beti oyec irautea; ez ordea erbes-
mota dotriñen modura entenditzen dirala; baicican Euscaldunen modura. Ona emen gure votoak
etorri eman bear dutena. Jaungoicoa eta Fueroac. Baña Jaungoicoa gauza guztien gañean. Bes-
te gauzarik baño lenago guera Eliza Catolica Apostolica Erromacoaren semeac, eta guizonen arte-
ko despitac baicic ez diran gauza guztiaq azpiratzen ditugu. Elizak, garaitu dezau; bada onen
alde dago Jaungoicoa. Eta Corteetan dotriña oyec argitaratu eta oyen alde an itzeguiteco, nay
ditugu Diputadu bialdu gure Provincia onetatik:

COL. P-F-APALATEQU

D. Vicente Manterola.

D. Tirso Olazabal Arbelaitz.

D. Ignacio Alcibar.

D. Manuel Unceta.

Zumarragan ilibeltzaren 4 garren egunean 1869 garren urtean. Juan José de Unceta. = Ignacio de Ibero. = Esteban de Zurbano. = José María de Dorronsoro. = Juan Bautista de Bengoechea.
= Pedro José Arsuaga. = José Ramón de Mendiola. = José de Picabea. = Ramón Zavala y Salazar. = José Miguel Echeverría. = Antonio Elósegui. = Francisco Ignacio Eizagirre. = Meliton Martínez de la Pera. = Joaquín María de Iriondo. = Martín Ignacio de Sarasola. = Atanasio de Múgica. = Francisco de Aguirre. = Nicolás Sein. = Juan Saturnino de Tapia. = Pedro Manuel de Ichaso Asu. = Joaquín de Azlorio. = Sebastián de Endaya. = Juan José de Zunzunegui. = Juan Cruz del Izagirre. = Martín José Mendiola. = Ladislao de Závala. = Roque de Heriz. = Atanasio Lasa de Larramendi. = Luis Garijo. = José Antonio de Amilibia. = José María Ason. = José Vicente Elosegi. = Ignacio José Zavala Ancheta.